



Tabako-partikulak versus diesel-autoen ihesak: ikuspegi hezigarria

<http://tobaccocontrol.bmj.com/content/13/3/219>

Tobacco Control 2004;13:219–221. doi: 10.1136/tc.2003.005975

G Invernizzi, A Ruprecht, R Mazza, E Rossetti, A Sasco, S Nardini, R Boffi

.....
.....

Laburpena:

Aurrekariak: Nerabe erretzaileek eta erretzeari utzi ala ez zalantzan dauden pertsonen ingurumenaren kutsadura erabili ohi dute erretzen jarraitzeko aitzakiatzat. Espazio itxietan, ingurumenean dagoen tabakoaren keak (ingeleseko izenaren siglak ETS dira) partikula fin bidezko kutsadura dakar (PM), eta gainditu egiten ditu espazio irekietan baimendutako mugak; autoen motor eta erregai berriek, aldiz, murriztu egin dituzte partikula kutsatzaileen isurpenak. Aurkeztuko ditugun datuetan, ETSaren PM isurpenak eta merkaturatu berri den diesel-autoarenak alderatu dira.

Metodoak: 60 m³-ko garajea aukeratu zen hiru zigarretaren (elkarren segidan piztuta, 30 minutuz) PM igorpenak eta TDCi 2000cc ibilgailuarenak (erralention, 30 minutuz) ebaluatzeko.

Emaitzak: Partikulak analizagailu eramangarri bat erabilita neurtu ziren, irakurketak bi minutuan behin eginez. Hona hemen PM₁₀, PM₂₅ eta PM₁ mailak (batez beste), hurrenez hurren: autoaren esperimentuan, 15 (1), 13 (0,7) eta 7 (0,6) µg / m³; ETSaren esperimentuan, berriz, 36 (2), 28 (1) eta 14 (0,8) µg / m³. Motorra abian jarri eta lehenengo orduan, hauxe izan zen erregistratutako PM mailen batezbestekoa (DS): 44 (9), 31 (5) eta 13 (1) µg / m³. Aitzitik, zigarretak piztu eta lehenengo orduan, hau izan zen batezbesteko PM maila: 343 (192), 319 (178) eta 168 (92) µg / m³, PM₁₀, PM_{2,5} eta PM₁ mailatarako, hurrenez hurren (p < 0,001, hondo-zuzenketa).

Ondorioak: Ingurumenean dagoen tabakoaren kea (ETS) PM bidezko kutsadura-iturri nagusietako bat da, eta espazio itxietan eragiten duen PM kontzentrazioa 10 aldiz handiagoa da erralention jarritako ekodiesel-motorrek isuritakoa baino. Egitate hori hezitzeko erabili ez ezik ikuspegi ekologikotik hartu behar da kontuan.



Azterlan honen ekarpena:

Ingurumen-kontuei esker, fabrikatzaileek gehiago erreparatzen diete beren ibilgailuen isurpenei, eta, hori dela eta, auto berriek zaharrek baino askoz gutxiago kutsatzen dute. Egungo datuek adierazten dute zigarretek diesel-autoek baino gehiago kutsatzen dutela isuritako partikulei dagokienean. Egitate hori bat dator, bereziki, gazteek ingurumenarekiko duten kezkaekin, eta tabakoa kontsumitzearen aurkako argudio eraginkorra izan daiteke.

"KAMIOIA vs TABAKOA"

<https://youtu.be/uUo-fqjYEjM>